

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

Praktiketako funtzionarioa izendatzea. Hautaketa-prozesua: txanda irekiaren bidez Administrazio Orokorreko Eskalako, administrari klaseko eta C1 taldeko hamabost (15) lanpostu oposizio-sistemaren bidez betetzeko.

Alkateak, urtarrilaren 22ko 252/2026 Alkatetzaren Dekretuaren bidez, honako hau xedatzen du bere xedapen-zatian:

Lehenengoa: Cristina Liébana Gómez (NAN **2597***) funtzionarioa praktiketan izendatzea, Administrazio Orokorreko Eskalako lanpostu batean (1), administrari klasekoa, C1 Taldekoa, derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunekoa, txanda irekian, deialdian eskatutako baldintzak betetzen baititu.

Bigarrena: Cristina Liébana Gómez behin-behinean atxikiko da KOD236_Hezkuntza, Kultura eta Euskara eta Gazteria eta Kirola Administrari Teknikari lanpostura.

Hirugarrena: Izendapen honek 2026ko otsailaren 2tik aurrera izango ditu ondorioak, egun horretan hasiko baita praktikaldia, eta sei hilabeteko iraupena izango du, deialdiaren oinarri espezifikoaren hamargarren puntuan ezarritakoaren arabera. Plazaren atxikipe-na behin-behinekoa izango da, praktikaldia amaitu arte.

Laugarrena: Praktikaldiaren ebaluazioa behin-behinean atxikita dauden arloetako arduradunei dagokie. Praktikaldia amaitu eta, hala badagokio, gainditu ondoren, karrerako funtzionario izendatuko da.

Bostgarrena: Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, legez dagozkion errekurtsoak jarrita, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, web orrian eta iragarki-oholean argitaratzea, oinarri arautzaileekin bat etorritz.

Basaurin, 2026ko otsailaren 5ean. — Alkatea, Asier Iragorri Basaguren